

Azurmendirekin filosofian bidaiatzen

Andoni Ibarra

'Theoria' aldizkariako editorea

Joxe Azurmendik 2011n erretiroa hartu zuenetik, hamarkada horretako urte guztietan, pandemia agertu zen arte, zuzenbideko eta filosofiako lau irakaslek txango bat egiten genuen Nafarroako geografian. Urteroko txangoak, aldi bakoitzean desberdina, Azurmendi unibertsitatean, EHUn, mantentzea zuen helburu, besteak beste. Txango baten jardueren artean, garai hartan erromanikoa izan zitekeen eliza baten sarrerako ateraino iristen ginenean, gu eskultura motiboekin txundituta geunden bitartean, Joxek haietan irudikatutako istorioa adierazten zigun. Eliz atarian irudikatutako santuen irudiek, zegokion santua identifikatzeaz gain, metaforikoki, haren bizitzaren, mezuaren edo legatuaren alderdiak nabarmentzen zituzten. Horrela, San Jeronimoren esku zegoen Biblia jakituriarekin, ezagutzarekin eta irakaskuntzarekin lotzen zen. Horrela pentsatzen zuen

Azurmendik: metaforikoki, ez kontzeptualki. Eta haren pentsamendua historian sakonki ainguratua zen.

Azurmendiren filosofiak ez du ia garrantzirik filosofia akademikoan — eta ez bakarrik euskaraz egina izatearen zailtasunagatik—. Gaur egungo filosofia akademikoan zorrotasun kontzeptuala funtsezko bertutetzat hartzen da. Eta Azurmendi ez doa hortik. Azurmendirena historian oinarritutako filosofia da, historia intelektualaren sakonetik elikatzen den filosofia alegia. Horregatik, Azurmendiren harrera beste diziplina batzuetan gertatu ohi da, hala nola politikan edo, berriki, ikasketa feministetan. Baina ez dugu saiakerarik Azurmendiren filosofiarekin sistematikoki konektatzeko. Filosofia hori ez da zalantzarik gabeko baieztapenez edo unibertsalki baliozkoak diren azalpenez arduratzen, baizik eta gizakiek beren arazoak konpontzeko ahaleginetan izandako esperientzien balio etiko edo epistemologikoaz.

Azurmendiren filosofia historikoak perspektiba sistematikora murrizteari egiten dio erronka. Hala, antropologia filosofikoko bere lanik handie-

nak, *Azken egunak Gandiagarekin* (2009) izenekoak, ez du gizakiaren definizio bat eskaintzen, baizik eta askotariko elementuak eraikitzeko saiakerak, sarritan bere jarrera teoriakoarekiko mesfidantza kezkaigarria- rekin batera.

Zeren gizakia ez da definitzen: «gizaberea» bezala irudikatzen

Filosofo baten egiazko estimua ez datza laudorio hutsak egitean, ezpada bere tesien irismen historikoarekiko konpromiso aktiboan

da, animalia txiki bat besterik ez. Euskara «herri gogo» (Volkgeist) gisa beste irudikapen metaforiko bat da. Irudikapen horiek bereziki oparoak dira Azurmendiren baitan. Azurmendik gizaberea eta herri gogoaren historia semantiko luzea, birformulazioz betea, zorrotz aztertzen du. Bi irudikapen horiek beren erabileraren

azpian dagoen konexio sistema adierazten dute (gizakia «gizaberetxo» gisa irudikatzeak ordena komunitario baten sakoneko metafora adierazten du, adibidez). Azurmendiren filosofia metafora konplexu horiek gizarte testuinguru funtzionaletan txertatze- ra bideratzen da. Bertan, testuinguru horietan, pentsamendu eta praktika formetan metaforek duten sortze ahalmena erakusten dute. Euskarak, herri gogoa den aldetik, eragin orientatzailea eta katalizatzailea du pentsamenduan, hizketan eta ekin- tzan. Komunitate organikoaren gogoa den heinean indar normatiboa garatu eta, azken batean, ekintza bideratzen du. Horrela ulerturik, Azurmendik 1967an egindako galderari erantzuten laguntzen digu euskarak: «zertarako euskaldun?».

Galdera horrek Azurmendiren ondare filosofikoaren etorkizunaz inter- pelatzen gaitu. Pentsalari euskaldun gutxik jaso dute hainbeste arreta eta errekonozimendu azken urteotan. Baina filosofo baten egiazko estimua ez datza laudorio hutsak egitean, ezpada bere tesien irismen histori- koarekiko konpromiso aktiboan. ●

Zuzendariari



BERRIAK irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dituzte 1.400 karaktere baino gehiago izan behar, tarteak barne, eta BERRIAK mozteko eskubidea du.

● Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: **Beria Martin Ugalde kultur parkea, 20140 Andoain.**

● Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: **iritzia@berria.eus**

Mutrikuko egoitzako laguntzaileak greban

Gipuzkoako erresidentzietan lan egiten dugunok greban gaude. Lan

baldintza duinagoak eskatzen di- tugu, noski, baina bada gutxitan aipatzen den beste aldarrikapen bat, garrantz sentitzen duguna gure larruan: ez gara 67 urtera arte hel- tzen. Gure lana fisikoki eta emo- zionalki oso gogorra da. Egunero gorputzak altxatzen ditugu, men- dekotasun egoera larrian dauden pertsonak artatzen ditugu, zaintza intentsiboa ematen dugu. Urteek aurrera egin ahala, gure gorpu- tzak apurtzen hasten dira. Gero eta gehiago gara azken urteak baja medikoen artean igarotzen ditu- gunak. Eta hori ez da bideragarria. Ez langilearentzat, ez erabiltzaile- rentzat, ez zaintza sistemarentzat.

Horregatik, uste dugu sektore honetako borrokan lehentasu- nezkoa dela erretiro aurreratua eskatzea. Gure lana penagarria eta arriskutsua da, eta hala aitortu behar da. Beste sektore batzuetan

dagoeneko aitortu dute erretiro aurreratua merezi dutela. Gurea ez da gutxiago.

Zaintza sistema publiko duin bat eraiki nahi bada, ezin da ahaz- tu zaintza hori egunero sosten- gatzen duten gorputzak ez direla agortu arte erabilgarriak. Bizitza duina aldarrikatzen dugunean, lan ibilbidearen amaiera ere dui- na izan dadila eskatzen dugu.

Karmele Goenaga Elezgaray eta Miren Ormaetxea Maidagan
Mutriku

Hezkuntzaren hautua, matematika hutsa

Egoera zaurgarrian daudenak eta ez daudenak nahastu, banatu eta

hori babestearen aldeko agertu naiz, baina badira hori egiteko moduak eta moduak.

Lege irmoetan eta portzenta- jeetan oinarritutako formula ma- tematiko jakin bat baino gehiago merezi dute umeek (zaugarriak izan edo ez) eta haien familiak, kasuan-kasuan aztertuta eta udalerriko edota hiriko kasua mahai gainean jarrita.

Familia batek, bere seme-ala- bentzako ikastetxe bat aukera- tzeko orduan, erabakia baldin- tzatzen duten egoera bat baino gehiago izan ohi ditu: sinesme- nak, ideologiak, irakasteko mo- duak, inguruak, kontziliazioak, umearen izateko moduak eta abar. Momentuz, guk herriko ikastetxe publikoan dugu pla- za, eta gure egunerokoa eta kon- tziliazioa bermatzeko herriko ikastolan eskaintzen zizkiguten

baldintzetatik urruti gabiltza orain.

Matematikan ere bada proba- bilitatea. Orain dela urte asko, naturaz inguratutako herri txiki batean bizitzeko hautua egin ge- nuen. Urrestillan badugu 3 urtera arteko haur eskola. 2 urterekin Azpeitira jaitsi eta guk nahi ge- nuen ikastetxean matrikulatzeko probabilitate handiagoa genuen, baina, urte bereko lau umeek gauza bera eginez gero, Urresti- llako Partzuergoko haur eskolan bi ume soilik geratuko ziren, eta itxi egin beharko zuten.

Bada garaia lege horren aurrean neurri horretako albo kalteak zu- zendu eta ondorioak ateratzeko, matematikako formulak eta por- tzentajeen irmotasun hori utzita eta kasuan kasukoa ulertuta.

Maria Lesaka Alberdi
Azpeitia